

## Alzheimerraren genea

**A**lzheimer-en gaixotasuna duten pazienteek gaixotasuna beren baitan zein abiaduraz garatuko den aurrikusteko modua izango dute laster. Horrek, Alzheimerren forma erasokorra gara dezaketen pazienteak behar bezalako laguntza jaso dezaten lagun dezake.

*ApoE* izeneko genea duela urtebete erlazionatu zen Alzheimerrekin. *ApoE*k gorputzean zehar koipeak garraiatzen dituen proteina bat kodetzen du. Gene horren forma berezi bat duten pertsonak gainerantzeko populazioak baino bi bider au-

kerak gehiago dute gaixotasuna garatzeko. Forma horri  $\epsilon 4$  deritzen. Gene akastun horren biko kopia heredatzeko zorigaitza daukatenean, 10 bider gehiago dute gaixotasuna garatzeko aukera. Bestalde, genearen beste forma batek,  $\epsilon 2$  izenekoak, gaixotasuna agertzea oztopatzen du dirudienez.

## Kaltegabeko bakterioa!

**G**aixotasun artrikoaren talde berezi baten jatorria urdailean bizi den bakterio kaltegabeetako bat izan daiteke, Texasko unibertsitateko ikerlari batzuen iritzian. Arratoiekin egindako saioren bidez iritsi dira ondorio horretara.

Espondiloartropatia izeneko gaixotasun hauen ezaugarrietakoak hauek dira: hesteen, larruazalaren edo genitalen inflamazioa eta bizkarren behe aldeko artritis.

Ezaguna da aspalditik HLA-B27 izeneko geneak gaixotasun horiekin loturak dituela. Izan ere, populazioaren % 8k baino ez dauka gene hori eta espondiloartropatia dutenen artean ordea, % 50 baino gehiagok. Dena dela, gaixotasuna urdaileko zein bakterioek eragiten duen agertzea eta horrek HLA-B27 genearekin zein lotura duen ez dago garbi. Beraz, iker-

keta gehiago behar dira gaixotasunaren mekanismo guztiak argitzeko.

## Otzi artritisa jota

**1**991ean Tirolean aurkitu zen 5.000 urteko giza momia-  
ren osasun-egoera ez zen oso ona elurrak estali zuenean. Otzi-ren momifikatutako gorpu-

koak ez dira. Alabaina, guztiak ale bakar batean aldi berean agertzea guztiz harrigarria da.

Gainera, lepoan, bizkarrean eta aldakan artritisak zeukan eta horren ondorioz, min kronikoa izango zuen. Hala eta guztiz ere, gauzarik harrigarriena bere artetariak eta benak kaltzifikazio-bidean egotea da. Arazo hori dieta modernoari egotzi izan zaio orain arte eta, uste zenez, garai hartako jan-neurria gaur egun-



tza X izpiz aztertu denean artritis mingarria, saihets hautsiak eta arteria gogortuak zituela ikusi da.

Bestetik, gaur egungo gizakiongan oso gutxitan ikusten diren eskeleto-egiturak zeuzkan. Besteak beste, 11 pare saihets zituen ohizko 12ren ordez. Gainera, bekaineko hezurra ohizkoa baino lodiago zeukan, tibia ohizkoa baino luzeagoa eta estuagoa eta aurreko bertortzen artean zuloa. Akats horiek oraingo gizakiongan ohizkanpo-

Otzi-ren momifikatutako gorputza X izpiz aztertu denean artritis mingarria, saihets hautsiak eta arteria gogortuak zituela ikusi da.

goa baino osasuntsuagoa izango zen. Elurroldeak Otzi harrapatu izan ez balu, bihotzekoak hilko zukeen.



Alzheimer-en gaixotasuna duten pazienteek gaixotasuna beren baitan zein abiaduraz garatuko den aurrikusteko modua izango dute laster.

